

## “AURTENGO EDIZIOA IREKIAGOA DA, ZAILAGOA AKASO, BAINA ERAKARGARRIAGOA”



**Jokin Izar | Orokieta Herri Eskola | Lehen Hezkuntza 2**

Jokin Izar Orokieta Herri Ikastolako (Zarautz) “Allepunta” taldeko zuzendari-arduraduna da, talde horrek lortu du Kosmodiseako Ikono Planetan Lehen Hezkuntza 2 kategorian lehen postua.

Izarren ustez, ikasleek “poz handiz” jaso dute saria, eta batez ere “egin beharreko elkarriketarako galderak prestatzen” egin dute lan gehien, hori baitzen atalik zailena.

**2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?**

Wikiak eskaintzen dituen aukera erakargarriak.

**Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?**

Xedearen zerizana ongi ulertzea.

**Nola egiten diozue aurre Kosmodiseako gainerako ekimenari?**

Batez ere, talde-lana sustatuz.

**Zein ezberdintasun ikusten dituzu aurtengo eta beste urteetako edizioetan? Egokiak eta onuragarriak al dira Kosmodisearen funtzionamenduan txertatutako aldaketak?**

Aurtengo edizioa irekiagoa da, zailagoa akaso, baina erakargarriagoa. Aldaketak egokiak direla uste dugu.